



Bestelako lankidetzak

Babelium proiektua: ahozkotasuna praktikatzeko kode irekiko plataforma

Juanan Pereira eta Inko Perurena***

Euskal Herriko Unibertsitateko GHyM¹ ikerkuntza-taldeak garatu du Babelium ekimena, Elurnet² enpresarekin batera. Hitz gutxitan esanda, euskararen ahozkotasuna praktikatzeko kode irekiko proiektua da Babelium. Webgunean parte hartzen duten ikasleek beste ikaskideek edo irakasleak berak prestatutako euskarazko mintzapraktika egiteko bideo-ariketak aurkituko dituzte: ahozko aurkezpenak, bikoizketak, ipuinak eta komikiak konartzeko erronkak... Ariketa horietan, bideo bat grabatu beharko du ikasle bakoitzak unean bertan, mikrofonoa edota web-kamera erabiliz eta proposatzen zaizkion ahozko probak gaindituz. Aplikazioa erabiltzeko, Interneteko arakatzaille bat besterik ez da behar, bertan egikaritzen baita Babeliumek behar duen guztia. Ariketen erantzunak burutu ondoren (grabaketak, alegia), Babeliumen argitaratuko ditu erabiltzaileak; horrela, irakasleaz gain, beste ikaskideek ere ebalua ditzakete elkarlanean.

- 1. Sarrera** Hizkuntza berri bat menderatzeko, hiru arazo nagusi gainditu behar izaten ditugu, hiru gaitasun lortu: idatzizko gaitasuna, ulermen-gaitasuna eta, azkenik, ahozko gaitasuna. Horien artean, dudarik gabe, azken hori da

* juanan.pereira@ehu.es

** inko@elurnet.net

zailena. Areago oraindik: erronka hau euskara ikastean ez ezik, edozein hizkuntza ikastean ere ematen da. Beraz, hurrengo hau dugu funtsezko galdera: ikasleak nola eta non praktika ditzake ahozko gaitasunak, euskara (edo beste edozein hizkuntza) oraindik menderatzen ez badu?

Orain arte, euskara-ikasle baten ohiko aukerak, eskualtegiaren bertan izan ezean, honelakoak izan zitezkeen:

- Kanean praktikatu. Zaila benetan, zeure buruarengan konfiantzarik ez baduzu. Ondo hitz egiten ikasi arte, lotsa gainditu behar da praktikatu ahal izateko. Eta hori, noski, euskara hitz egiten den ingurune batean bazaude. Horrela ez bada, nola praktikatu?
- Mintzapraktika egiteko beste lagun edota kide batekin elkartu, bai aurrez aurre edo bai online, *Skype* edo antzeko aplikazioak erabiliz. Bide hau baliatu nahi bada, 1993an hasi eta egun indarrean dagoen *MintzaPraktika* proiektuaren³ laguntza jaso dezake interesatuak: euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak ohitura hori ez dutenekin elkartzean datza. Horrela, aurrez aurre zein online eran (*Skype* erabiliz) ahozko gaitasunak lantzen dira proiektuaren baitan. Arazoen artean, aipagarria da ez dela erraza aurkitzea boluntario gisa jardun nahi duten hiztunak. Eta, topatuz gero, ez da erraza ordutegiak bateratzea. Azkenik, zaila da ezagutza-maila ezberdinetako ikasleak *MintzaPraktika* bezalako programetan egokitzea.

Oso urriak edo hutsalak dira euskararen ahozko gaitasuna praktikatzeko online aplikazioak. Interneten bidez ikasteko eskaintzen diren baliabideen artean (*Boga, Ikasbil, AISA...*) ahozko gaitasuna da, hain zuzen ere, faltan sumatzen den gaitasun nagusia.

Lehen aipatu dugun bezala, arazo hau ez da tokikoa; mundu-mailakoa baizik. Izan ere, zalantza franko azaleratu dituzte nazioarteko hizkuntza-irakasle askok ahozko gaitasuna praktikatzeko online tresnen baliagarritasunaren inguruan (Blake et al, 2008; Morales Ríos eta Ferreira Cabrera, 2008). Hala, ahozko gaitasuna da puntuaziorik baxuena jasotzen duen gaitasuna, hizkuntzen irakaskuntzan erabiltzen diren online teknologien onurak neurtzeko garaian. Adibidez, Cummings-ek (2005) gaztelania-irakasleen Interneteko tresna informatikoen erabilera ikertu zuen. Bere ondorioetan garbi utzi zuen irakasleriak ez zuela begi onez ikusten Internet erabiltzea ahozko gaitasuna praktikatzeko: % 7.5ek baino ez zuen horrelako erabileran sinesten; ondoren zetozen, hurrenez hurren, entzumena (% 17.6), idazmena (% 31.3), gramatika (% 48.5), hiztegia (% 49.8) eta, azkenik, Interneteko tresneriaz gehien landu zitezkeen gaitasuna, irakurmena (% 64.8) –irakasleek erantzun bat baino gehiago eman zezaketen–.

Felix-ek ere (2002) erakutsi zuen bere ikerkuntza-lanean irakasleentzat garrantzi txikia duela ahozko gaitasuna garatzeak online. Lan berean, ahozko gaitasuna praktikatzeko inolako baliabiderik ez izatea aipatzen dute eskola birtualetan parte hartzeko desabantaila nagusi gisa online bidezko ikasleek. Bien bitartean, Swansonek eta Noldek (2011) elkarrizketatutako

ikasleen iritziz, ahozketasuna da gaitasunik garrantzitsuena hizkuntza bat ikasterakoan.

Beste ikerketa batean, Meier-ek (2012) unibertsitateko hizkuntza-irakasleak elkarrizketatu zituen. Bertan, ebaluazioak eskatzen duen ordu-kopuru handia aipatu zuten, ahozketasuna irakasteko eragozpen edo erronka nagusi gisa. Ondorio berera ailegatzen dira Flewelling eta Snyder-en (2005) zein Lyddon eta Sydorenko-ren (2008) lanetan.

Meier-en ikerketan, online hizkuntzen irakaskuntzan urte bateko eskarmentua zuten unibertsitateko irakasleen artean egindakoan, % 37.2k besterik ez zuen uste lagungarria izan zitekeela ordenagailuen erabilera ahozketasunaren irakaskuntzan. Cummings-ek zioenarekin alderatuta, kopuruak igo arren, ahozketasuna da oraindik beste gaitasunen azpitik geratzen dena irakasleen iritziz. Zehazki, hona hemen Meier-en ikerketan lortutako emaitzak, Interneteko tresneriaz landu daitezkeen gaitasunei buruzko usteei dagokienez: idazmena (% 50.3), gramatika (% 60.5), irakurmena (% 61.6), hiztegia (% 68.7) eta, azkenik, entzumena (% 71.2), horrela gehien landu daitezkeen gaitasuna, alegia.

Egoera honi aurre egiteko eta aipatutako arazo horiek guztiak kontuan izanda, EHUko GHyM ikerkuntza-taldea, Elurnet enpresarekin batera, Babelium izeneko soluzio informatiko bat garatzen hasi zen 2009an. Lan horren emaitzak 2010-2012 urteen bitartean kaleratu ziren: webgunea⁴, alde batetik; Moodle plataformarako Babelium gehigarria edo *plugin*-a, bestetik.

2. Babelium proiektuaren webgunea

Elkarrekintza elkarlanean sustatzen duen online aplikazio irekia da webgune hau. Bertan, ikasleek bideo-ariketa interaktiboak aurkituko dituzte. Interaktiboak diogu erabiltzaileak ez duelako soilik bideoa ikusiko; horrez gain, bideoaren gainean bertan bere ahotsa grabatuko du (eta aukeran irudia ere bai), inolako aplikaziorik instalatu beharrik gabe; alegia, web-arakatzailarekin nahikoa izango du zeregina burutzeko.

Babeliumek proposatzen dituen bideo-ariketekin lan egiteko, funtsean, honako lan-fluxua jarraitu beharko du ikasleak:

- i) Proposatutako bideoa bistaratu.
- ii) Mikrofonoa edota web-kamera erabili nahi duen hautatu.
- iii) Bideoaren gainean bere ahotsa grabatu (irudiarekin ala irudirik gabe).

Grabaketa amaitu ondoren eta egindako lana zerbitzarian argitaratu baino lehen, ikasleak bi aukera izango ditu. Grabatutakoa aztertu, eta, gustura geratu ez bada, berriro saiatzeko era izango du; grabaketa ondo egin duela iruditzen bazaio, aldiz, bere erantzuna Babeliumen argitaratu ahal izango du, irakasleak ebalua diezaion. Halaber, irakasleak horrela erabakitzen badu, litekeena da beste ikaskide batzuen ebaluazioak ere jasotzea (ikus 1. irudia).

Azpitarratu behar da ikasleak ahozko grabazioa egiteko denbora mugatua izango duela (bideoan bertan irakasleak zehaztuko duena, hain zuzen). Beraz, denbora-tarte horretan hitz egin beharko du, eta bere azalpen guztiak bertan txertatu, ezingo baitu grabaketa eten. Horrela, euskaltegietan eta hizkuntza-eskoletan egiten den ohiko ahozko azterketa prestatzeko egoera simulatu nahi da.

1. irudia: Ikasleen grabaketak elkarlanean ebalua daitezke, aldez aurretik jarritako irizpideak erabiliz, eta, aukeran, testu- edota bideo-iruzkinen bidez ere bai

The screenshot shows the Babelium web application interface. At the top, there is a navigation menu with options: Hasiera, Praktikatuko, Ebaluatu, Azpituatuko, Konfiguratu, and Babelium-ri buruz. The main content area is titled "Ebaluatu" and features a video player with the title "Egun on! Telefonoa?". Below the video player, there is a section for "Erabiltzailearen erantzuna kalifikatu" (Rate the user's response), which includes a list of criteria with star ratings and checkboxes for "Testu iruzkina erantsi" and "Bideo iruzkina erantsi".

Horrez gain, grabaketa egiten den bitartean, aholkuak jaso ditzake bideoan bertan ikasleak; helburua da bere hitz-jarioari eustea. Adibidez, hitz egiteko gaia “aldaketa klimatikoa” balitz, ikasleak hitz egiten duen heinean, honelako hitz gakoak eta irudiak ikusi ahal izango lituzke: deforestazioa, lantegiko tximinia kutsatzaileak, glaziarren izotza urtzen, berotegi-efektua, energia aurrezteko gomendioak, etab. (ikus 2. irudia).



3. Web 2.0 izaera

Webgune batek Web 2.0ko arloan sailkatzeko baldintza batzuk bete behar ditu: elkarrekintza bultzatu, edukien sorkuntza erabiltzaileen esku ere utzi eta edukien berrerabilpena sustatu. Kondizio hauek horrela betetzen ditu Babeliumek:

- **Elkarrekintza.** Gure proiektuko edozein erabiltzailek igo dezake bideo-ariketa berri bat, erantzuna eman beste batek proposatutako ariketa bati edota erantzun baten ebaluazioa egin. Ariketa bat ebaluatzeko, ez du zertan irakasle-rola izan: koebaluazioa egitea bultzatzen dugu Babeliumen. Hortaz aparte, erabiltzaileek badute igotako baliabideen kalitatea bozkatzeko aukera (edo, zuzenean, egokia ez dena salatzeke).
- **Edukien sorkuntza erabiltzaileen esku.** Esan bezala, edonork igo dezake Babeliumera bideo- ariketa bat, edozein bideo-formatu eta tamainatan. Behin bideoa plataforman dagoenean, beste erabiltzaile batzuek igotako bideo-ariketa hori azpigitula dezakete, baita elkarlanean ere. Bideo baten azpigitulu horiei esker jakin ahal izango du aplikazioak noiz eman behar dion erabiltzaileari erantzuna grabatzeko aukera. Alegia, azpigituluetan zehaztuko da bideoaren zein segundotan hasi behar den ikaslea bere mikrofonoaz (edota web-kameraz) grabatzen.
- **Berrerabilpena.** Alde batetik, bideo-ariketa eta bideo-erantzunak *Creative Commons* deritzon lizentziarekin igotzea proposatzen dugu (*cc-by*, *cc-by-sa*, *cc-by-nd*, *cc-by-nc*, *cc-by-nc-sa*, *cc-by-nc-nd*)⁵. Lizentzia horiei esker, euskara-irakasle batek beste kide batzuek landu dituzten bideoak berrerabili ahal izango ditu, legerik hautsi gabe. Bestetik, Babelium aplikazioaren kodea bera ere kode irekiko lizentzia baten mende argitaratu dugu (*GPLv3*, online irakaskuntzarako Moodle plataforma ezagunak erabiltzen duen lizentzia bera). Hau honela, edonork har dezake Babeliumen kodea, bere zerbitzarian instalatu eta nahieran aldatu, doitu edota banatu, inolako lizentziarik ordaindu beharrik gabe.

4. Moodle plataformarako Babelium gehigarria

Aipatu dugun bezala, euskara ahoz lantzeko bideo interaktiboetan oinarritzen den plataforma bat eskaintzen du Babeliumek. Garatutako tresnen bitartez, norik bere ordutegi propioa jarrai dezake mintzapraktika egiteko eta, behar ahala, irakasleen edo ikaskideen ebaluazioa jaso.

Plataformaz gain, Moodle plataformarako gehigarri ofiziala ere eskaintzen du Babeliumek, hizkuntzaren alorrean diharduten erakundeetarako oso baliagarria dena. Gehigarri hau erabilita, erakundeek Moodle plataforman erabil ditzakete Babeliumek eskaintzen dituen aukera guztiak. Aipatzekoa da Moodlek eskatzen dituen gidalerro zorrotzak jarraitu behar izan direla, gehigarria 2012an onartua izateko Moodlen *plugin* ofizialen kode-biltegi⁶.

Egindako lanari esker, Moodleko Lehenengo Nazioarteko Ikerkuntza Jardunaldian aurkeztu zen gehigarri hau komunitate zientifikoaren aurrean (Pereira et al., 2012).

5. Euskara ikasteko Babelium erabileraren esperientzia praktiko bat

Lau euskaltegitan egindako ikastaro pilotuen bitartez frogatu ditugu Babelium aplikazioaren erabilgarritasuna eta funtzionaltasuna. AEK E-uskaltegia, Arturo Campión Euskaltegia –IKA–, Etxebarriko Udal Euskaltegia eta Santurtziko Udal Euskaltegia zentroetako ikasle eta irakasleekin egin dira probak. Saio hauetan, 200 ikasle heldu aritu dira gutxi-asko, emakume/gizon-proportzio bertsuan.

Adibide gisa, 1. taulan laburbildu ditugu egindako 3 ariketa-mota nagusiak; bertan zehazten dira ariketa bakoitzaren deskribapena, zailtasun-maila (Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera) eta ariketa horrekin landu nahi diren ALTE adierazleak (ikus 6. atala). Guztiak dira euskara-azterketetan ahozkotatzen ebaluatzeko erabiltzen diren probak.

- 1 Lehenengo ariketan, ikasleak telefonoz egindako elkarrizketa batean parte hartu behar du. Adibidean ikusten den legez, ikasleak web-kamera erabiltzea erabaki du; agian, irakasleak horrela egitea eskatu diolako, bai iruzurrak ekiditeko –mikrofonoarekin soilik errazagoa da beste norbaitek ikaslea ordezkatzeko– edo bai gorputz-hizkuntza landu nahi duelako, ikasleak bere burua euskaraz hitz egiten ikusi nahi duelako edota jendaurrean hitz egiterakoan sortzen den urduritasuna leuntzen ikasteko.
- 2 Bigarrenean, berriz, ikasleari honako egoera hau proposatzen zaio: Udalak bere etxe aurrean jarri du gustukoa ez duen eskultura itsusi bat. Haserre, Udalera telefonoz deitu, eta kexa azaldu behar du 2 minutuan. Irudian ikusten den bezala, ikasleak mikrofonoarekin soilik grabatzea erabaki du oraingo honetan.
- 3 Hirugarrenean, azkenik, liburu digitalen inguruko hainbat datu aztertu ostean, ikasleak bere iritzia azaldu behar du. Hiru minutuan, zergatik gustatzen zaizkion (ala ez) liburu digitalak, paperezko liburuekin erkatu eta ondorioak adierazi behar ditu.

Oso positiboa izan da euskaltegietan egindako inkesten bitartez jasotako atzeraelikadura. Ikasleriaren gehiengoak jo du interesgarritzat plataformaren erabilera, eta azaldu du ahozko azterketarako praktikatzen bide berritzaile eta entrenigarria dela. Hauek izan dira ikasleek gehien balioetsitako ezaugarriak:

- Beren burua beste hizkuntza batean ari direla entzutea; modu horretan, ahoskatze eta doinu aldetik nola dabilzan konturatzen direlako.
- Ariketak grabatzeko orduan, gauzak esateko denbora-tarte mugatua izatea oso erabilgarria da hitz egitean abiadura hartzeko, nahiz eta hasieran estresagarria izan.
- Oso lagungarria da ikusizko laguntzak edukitzea ariketetan (irudiak, gaiarekin erlazioatutako hitzak), hitz egiterakoan trabatuta ez geratzeko.
- Irakasleek ikasleen grabaketak ikusi eta ebaluatu ahal izatea, batez ere guztiz online diren ikastaroetan.

1. taula: Babeliumekin egindako ariketa-motei buruzko hiru adibide

	<p>Maila: B1.</p> <p>Trebetasuna: ahozko elkarrizketa.</p> <p>ALTE adierazlea: “Gai naiz aurrez aurreko elkarrizketa sinpleak hasi, mantendu eta amaitzeko, gaia ezaguna edo interes pertsonalekoa denean”.</p> <p>Deskribapen laburra: deitu zure lagunari, eta tabernan geratzeko ordua eta lekua adostu (zehaztu non eta noiz).</p>
	<p>Maila: B1.</p> <p>Trebetasuna: ahozko ekoizpena.</p> <p>ALTE adierazlea: “Gai naiz istorioak kontatzeko”.</p> <p>Deskribapen laburra: Udalak zure gustukoa ez den eskultura bat jarri du zure etxe aurrean. Telefonoz deitu, eta zeure desadostasuna adierazi (<i>itsusia da, jarri aurretik ez dute auzolagunen iritzia eskatu</i>, eta gisa honetako beste azalpen batzuk erabili).</p>

<p>Liburu elektronikoak eta liburu tradizionalak</p> 	<p>Maila: B1</p> <p>Trebetasuna: ahozko ekoizpena</p> <p>ALTE adierazlea: “Gai naiz nire ideiak eta iritziak eztabaidan argi eta zuzen emateko, konbentzitzeko moduan argudiatzeko, baita arrazonomendu zail eta bihurriei erantzuteko ere”.</p> <p>Deskribapen laburra: liburu digitalen inguruko zenbait ezaugarri eta paperezko liburuen arteko hainbat abantaila eta desabantaila ikusi eta entzungo dituzu. Ezaugarri horiek gehiago garatu, eta azaldu zein den zure iritzia.</p>
--	---

Eragozpenen aldetik, hauek izan dira ikasleek gehien aipatu dituztenak:

- Lotsa ematen die beren burua bideo batean grabatzeak. Are gehiago, kasu batzuetan (maila oso baxua denean, batez ere), audioa soilik grabatzea ere ez dute atsegin.
- Etxean ez dute mikrofono eta web-kamerarik, edo, halako tresnaren bat izatekotan, batzuek sekula ez dute erabili webgune batean horrelako ariketak egiteko.

6. ALTE-EAQUALS adierazleak

Egindako garapenen froga pilotuen arduradunekin bildu ondoren, zein izan zitekeen sortutako bideo-materiala era egokian sailkatzeko mekanismo aproposena eztabaidatu genuen. Hau honela, eta kontuan hartuta heldua dela zentro hauen ikasleria, zenbait puntu zehaztu genituen sailkapen-irizpide gisa: alde batetik, irizpideak bateragarri izan behar dira ikasleek kudeatzen dituzten ikastaro-portfolioarekin (Bereziartua, 2011); eta, bestetik, Europa-mailan estandarizatuta egon behar dira, euskaltegiek Europako Markoan oinarritzen dutelako beren irakaskuntza-plana.

Baldintza guztiak betetzen zituzten zenbait irizpide bilatu eta probatzen aritu ondoren, ALTE-EAQUALS ELP⁷ (Schärer, 2008) irizpide- edo adierazle-sorta aukeratu genuen azkenean. Hautaketarako arrazoiak ondoko hauek izan ziren:

- Adierazle horiek ulerterrazak dira; alegia, ez dira hizkuntzalaritzan adituak direnek soilik ulertzeko modukoak, eta edozein ikaslek ulertzen ditu. Ondorioz, ikasleek beren ikastaro-portfolioan erabil ditzakete. Areago oraindik: irizpide hauek biltzen dituen doako ELP software bat prestatu zen, horiek garatu zituztenean⁸. Sinpleak eta zuzenak direnez, erraza da adierazle bakoitzean hobekuntza-xede bat identifikatzea eta ikasleek puntu zehatz batean izan duen eboluzioa antzematea.

- 16 urte edo gehiago duten ikasle helduentzako pentsatuta daude. Ikasle-mota honek normalean izaten dituen komunikazio-beharrak eta helburuak oso ondo aztertu ondoren garatu ziren.
- Ikerkuntza- eta egiaztatze-prozesu luze baten ondoren, Europa-mailan hizkuntzalaritza-arloan aintzatespen eta ospe handia duten EAQUALS eta ALTE erakundeek elkarlanean garatutakoak dira –HABE bera dago ALTE erakundearen–.
- Proposatutako adierazleak Europako Markoaren zailtasun-mailen araberakoak dira, eta, ondorioz, irakasle zein ikasleei ez zaie zail egiten ariketak azkar kokatzea.

Aukeratutako adierazleak euskaltegietako irakasle eta arduradunekin eztabaidatu genituen, eta, azkenik, ontzat eman ziren. Gaur egun, bideo bat igotzerakoan irakasleriak badu adierazle hauek zehazteko aukera. Adierazleak bideoaren zailtasun-mailaren baitan aldatzen dira; horrez gain, irakasleak maila baten barnean hainbat adierazle aukera ditzake. Honela, modu estandarizatu bat erabiliz, sailkatuta geratzen da ariketa (ikus 3. irudia).

3. irudia: B2 mailako ariketa baten adierazleak aukeratzeko

The screenshot shows a web form titled "Ariketa Berria Igo". The form contains several sections for configuring an exercise:

- Izenburua:** A text input field containing "Energia aurrezteko aholkuak".
- Deskribapena:** A text area containing "Eman litzaue energia aurrezteko aholkuak edo energia garbiei buruz dizuzun iritzia. Horretarako 5 minutuz hitz egiteko aukera izango duzue. Tarteka gaiarekin erlazionatutako irudiak eta hitzak agertuko dira ariketan, zure hitz jarria mantentzen laguntzeko."
- Etiketak:** A text input field containing "ekologia, iritzia, kontestu libre, energia".
- Zailtasun maila:** A dropdown menu set to "D2 Erdi-mailakoa" and a radio button labeled "Adierazleak".
- Adierazleak:** A list of 15 checkboxes with corresponding text:
 - Gai naiz deskribapen argi eta zehatzak egiteko nire gustuko ari gehienen gainean.
 - Gai naiz trapean jakineko ekaizketan era aktiboa jarduteko, mintzagailu interes orokonekoak dituen.
 - Gai naiz arazoen gainean diutan kuspuntua azaltzeko, aukeren arteko abantailak eta desabantailak agertzeko.
 - Gai naiz emozio-graduak adierazteko eta esperientzietan edo gertaeren axolia zaitdana azpimarratzeko.
 - Gai naiz arrazonomendu logikoak erakitzeko eta nire idelak uzartzeko.
 - Gai naiz gauzen zergatiaz, ondorioz edota balizko egonez ditudan irudipenak eta gogotak azaltzeko.
 - Gai naiz nire intereseko edo nire ariko informazio zehatz ugari beste norbaitekin inakatzeko.
 - Gai naiz aldez aurretik prestatutako ekaizketa hait aurre egiteko, uertu dudana zuzena ote den baieztatzeko eskatuz eta erantzun batzu...
 - Gai naiz film edo antzerki-lanen argumentua eta gertaeruen sekuentzia ulertzeko eta ahaz laburtzeko.
 - Gai naiz aldez aurretik, ekaizketa edo erreportajeetatik ateratako testu-zatiak irakurri eta ahaz laburtzeko, kuspuntuak, argutia eta eztabaid...
 - Gai naiz norbaitekin naturaltasunez hitzketan hasi, jastun eta hakitzeko, hitz egiteko trankak hartuz eta emanez.
 - Gai naiz eztabaidetan neure iritzia arazoitu eta defenditzeko, homelazko argibideak, argutia eta inuzinak eskaintz...
 - Gai naiz elkarrizketari laguntzeko, gata ezaguna derriren, uertzen dudala baieztatuz edo gaiterako solaskideak hitz egitera gonbidatuz elab...
- Hizkuntza:** A dropdown menu set to "Euskara".
- Bideoaren lizentzia zehaztu:** A dropdown menu set to "Aintzatespena".
- Egilea/Helbidea:** A text input field.
- Igeera metodo bat aukeratu:** Two radio buttons:
 - Zure komputagailutik hartutako bideo fitxategi bat igo
 - Web-kameraraino ariketa bat grabatu eta hau gordu

Ariketa baten xehetasunak erakusterakoan, horrek dituen adierazleak ikus ditzakegu (irakasleak adierazlerik zehaztu baldin badu, jakina). Adibidez, 4. irudian, Babeliumek eskaintzen duen bilatzailean “Gai naiz arrazonomendu logikoak erakitzeko” bilatzen badugu, ikus dezakegu aurkitutako “Gure nagusiak” izeneko ariketak baduela adierazle hori, beste adierazle batzuek gain.



7. Bideo-bildumaren hazkundera

2013. urtera arte, 180 bideo jaso dira guztira erabiltzaile eta euskaltegiei esker. Sortutako eta igotako materialaren lizentziari dagokionez, irakasle eta erabiltzaile gehienek erabaki dute beren lana *Creative Commons* lizentziak erabilita partekatzea.

Ariketa hauei jarraituta, 212 grabaketa argitaratu dituzte ikasleek. Gogora dezagun gustura dagoenean argitaratzen duela ikasleak grabaketa, eta aurretik nahi beste saiakera egiteko aukera duela. Grabaketa horien % 60,85ean, mikrofonoa eta web-kamera erabili ziren; gainerako % 39,15ean, berriz, mikrofonoa soilik.

8. Ondorioak eta proiektuaren etorkizuna

2012an, euskaltegiatako irakasle eta ikasleak izan ziren proiektuaren erabiltzaile nagusiak, eta, 2013an, ingelesezko eskoletara hedatu da, oso arrakastatsua izan baita euskaltegiekin izandako esperientzia; hain zuzen ere, UPV/EHUko Letren Fakultateko 6 irakasle eta 200 ikasle bilduta.

Babeliumek duen nazioartekotasun-potentziala dela-eta, eta gehigarria Moodleko kode-biltegi ofizialean onartua izan ondoren, nazioarteko zenbait erakunderen interesa piztu zen. Hauen artean Europako zenbait estatutako hizkuntza-irakaskuntza zentroak, eta, horien artean, azpimarratzekoa da Goethe Institutua (mundu-mailan 136 eskola dituen institutu alemaniarra). Hizkuntza hauetan guztietan ahozkotetasuna praktikatzeko bideo-sorta dotore bat sortu nahi da, CC lizentziapean egongo dena, eta, horren laguntzaz, proiektua ahal den guztia zabaldu, eta ez mugatu soilik Euskal Herrira. Hori da, hain zuzen ere, Euskal Herriko

Elurnet enpresak, Tecnalia korporazioak eta UPV/EHU unibertsitateak proposatu duten etorkizunerako proiektuaren helburuetariko bat, Italiako, Alemaniako, Frantziako eta Erresuma Batuko beste erakunde batzuekin batera, Europako *Life Long Learning* ekimenaren barruan.

Alderdi teknikoari dagokionez eta etorkizun hurbilera begira, gure helburu nagusia da, ahal den neurrian, murriztea *Adobe Flash* teknologiarekiko dugun mendekotasuna (kode itxiko teknologia delako eta bateragarria ez delako gaur egungo gailu guztiak) eta apurka-apurka barneratzea HTML5 estandarrak eskaintzen dituen ezaugarriak (kode irekia, estandarra, baina oraindik ere amaitu gabea).

Bide batez, HTML5eko bateragarritasun hori lortuz gero, *iPad* edota *iPhonetan* –*iOS* sistema operatiboaz dabilzanetan– eta *smartphone* eta *tabletetan* –*Android* bidezkoetan– ere erabili ahal izango da Babelium. Mugikorretan oinarritutako hizkuntzen irakaskuntza gero eta zabalagoa izango delakoan gaude, eta, horren ondorioz, bide horretatik joko du etorkizun hurbilean Babelium garapenak.

Oharrak

1. GHyM, *Grupo Hipermedia y Multimedia*.
<http://www.ehu.es/ehusfera/ghym/>
2. <http://elurnet.net/>
3. <http://mintzapraktika.org>
4. <http://babeliumproject.com>
5. *Creative Commons lizentziak*: <http://creativecommons.org/licenses/?lang=en>
6. Moodleko Babelium gehigarri ofizialaren helbidea: <https://moodle.org/plugins/plugin-version.php?id=754>
7. EAQUALS-ALTE ELP adierazleak bi erakunderen arteko lana izan da: EAQUALS (*European Association for Quality Language Services*) eta ALTE (*Association of Language Testers in Europa*). Adierazle horiek, Hizkuntzen Portfolio Europarra (ELP ingelesez, *European Language Portfolio*) zehazteko erabiltzen dira.
8. EAQUALS/ALTE ePortfolio doako aplikazioa: http://www.eelp.org/eportfolio/installers/ePortfolio_english.sh

Bibliografia

- Bereziartua, J. 2011. Hizkuntzen Portfolioa ataririk ikasgelara. *Tantak*, 38. [dokumentua linean] <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Tantak/article/viewFile/3156/2782>.
- Blake, R. et al. (2008). Measuring oral proficiency in distance, face-to-face, and blended classrooms. *About Language Learning & Technology*, 114.
- Cummings, A. D. (2005). *Administrative and pedagogical uses of computers in foreign language classrooms: A survey of Spanish teachers' beliefs and practices*. University of Iowa.
- Felix, U. (2002). The web as a vehicle for constructivist approaches in language teaching. *ReCALL*, (1): 2-15.
- Flewelling, J.; Snider, D. (2005). Extending the foreign language classroom with technology: Creating computerized oral activities and tests. In *The 2005 Report of the Central States Conference on the Teaching of Foreign Languages*: 85-98.
- Lyddon, P. A. et al. (2008). Assessing distance language learning. *Opening doors through distance language education: Principles, perspectives, and practices. CALICO Monograph Series*, 7: 109-128.

- Meier, M. 2012. *Enseñanza de la destreza oral y el uso de herramientas Web 2.0 en entornos virtuales*. Universidad de Salamanca: Salamanca.
- Morales Ríos, S.; Ferreira Cabrera, A. 2008. La efectividad de un modelo de aprendizaje combinado para la enseñanza del inglés como lengua extranjera: Estudio empírico. *RLA. Revista de lingüística teórica y aplicada*, 46 (2): 95-118.
- Pereira, J. et al. 2012. Interactive speaking practice, assessment and exercise sharing with Babelium plug-in. *1st Moodle Research Conference-n aurkeztua*, Kreta (Grezia).
- Schärer, R. 2008. European language portfolio: Interim report 2007. [dokumentua linean] http://www.coe.int/t/dg4/education/elp/elp-reg/Source/History/ELP_report_2007_EN.pdf
- Swanson, P.; Nolde, P. 2011. Assessing Student Oral Language Proficiency: Cost-Conscious Tools, Practices & Outcomes. *The IALLT Journal*, 41(2): 72-88.